

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixente Azkarate Zabarte

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1933-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Iturriotz kalean jaio zen. Aita Meatzerreka auzoko Zelaitxo baserrikoa zen (baserria aspaldi erre zen), eta ama Udala auzoko Ozaeta baserrikoa. Lau urtetik bederatzira mesedetako mojen eskolan ibili eta bukatu zituen eskolok. Gau-eskolara ere joan zen, eta bere seme-alaben eskola liburuekin bukatu zituela ikasketak dio Bixentek. Bederatzi urterekin amaren baserrira joan zen bizitzera lan-truke. Bertan urte eta erdi pasatu ondoren, Aretxabaletako Galartza auzoko Errartena baserrira joan zen. 13 urterekin Mancebo lantegian hasi zen lanean, erromatar balantzak ("romana") egiten. 17 urterekin "Metalúrgica Cerrajera"n ekin zion lanean, sarrailak eta giltzak egiten. Soldaduska ondoren, Zerrajerara joan zen. Kalitate kontrolean, marketing eta erosketa arduradun lanetan jardun zuen, bertan erretiroa hartu zuen arte. Arrasateko "Distrito 33"ean bizi izan da urteetan. Lau auzune zituen barruti horrek, bakoitza bere berezitasun eta jaiekin. Bixentek bultzatutako auzolan bati esker, lau auzuneok bat egin eta Santa Marina izeneko auzo bakarrean elkartu ziren. Bixentek Arrasateko Musika Bandan jo zuen urteetan. Geroago, Arrasate Musikal musika eskolako sortzailetakoa bat izan zen. Azkoitiko Urkiologi baserriko Inazia Lizarralderekin ezkondu zen. Lau seme-alaba dituzte.

Zintak

ARR-152

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-13
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Ozaeta baserriko kontuak

- **Erref:** ARR-152/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bederatzi urterekin Arrasateko mesedetako ikastetxea utzi, eta amaren jaiotetxera, Udalako Ozaeta baserrira, joan zen "jan aldera". Ozaetan baserriko bizimodua eraman zuen familiarekin. Ortuko landarak saldu ohi zituzten Durangon astoan joanda. Dozena erdi behi baziren baserrian, eta behi-esnearekin gazta egiten zuten; geratzen zen esnea kalean saltzen zuten Bixenteren izebek.

2. Monagilo "derrigorrean"

- **Erref:** ARR-152/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:08:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Aiton-amonekin Udalako Ozaeta baserrian bizi izan zen denboran, monagilo lanetan ibiltzen zen Bixente. Udalan abade egondako Don Jose Maria Badiola aizpurutxoarra eta Don Joakin Murua bergararra aipatzen ditu. Udalan abade-etxea zegoen, eta Badiola abadea amarekin bertan bizi zela dio.

3. Udalan, mezak latinez

- **Erref:** ARR-152/007
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Udalan monagilo egon zen garaiko kontuak. Monagilo moduan zer eginkizun zituen kontatzen du. Bixenteren aitona eta osaba sakristau lanetan ibiltzen ziren. Mezak latinez izaten ziren, eta elizabarrutiko gutunak gaztelaniaz irakurtzen ziren; meza entzutera joaten zirenek ez omen zuten ezer ulertzen.

4. Aretxabaletara, izebarenera

- **Erref:** ARR-152/009
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Udalako Ozaeta baserrian aiton-amonekin urte eta erdi egin eta gero, Aretxabaletako Galartza auzoko Errartena baserrira joan zen bizitzera. Han amaren ahizpa eta haren familia bizi ziren, eta baserriko lanetan aritzen zen. Ez ziren asko baserrian, eta lan asko egin behar izaten zuen. Morroia ere bazen baserrian; bederatzi urterekin joan eta 86 urtera arte bertan bizi izan zen.

5. Mancebo lantegian, erromatar balantzak egiten

- **Erref:** ARR-152/010
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Aretxabaletan, izebaren baserrian, urte eta erdian bizi izan eta gero, Arrasateko Mancebo lantegian hasi zen lanean 13 urterekin. Lantegiko ugazaba eta haren familia zein ziren azaltzen du. Erromatar balantzak egiten zituzten lantegi horretan. Sei lagun aritzen ziren lantegian. 17 urtera arte ibili zen lanean Manceborenean.

6. Soldadutzako banda militarra

- **Erref:** ARR-152/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Bixenteren etxean musikariak ziren: aitak eta bost anaiak Arrasateko bandan jotzen zuten. Bixentek Donostian egin zuen soldadutza, Loiolan: "Regimiento de infantería. Cazadores de montaña. Número 8". Soldadu egon zen denboran, banda militarrean tronpeta jotzen zuen. Banda militarrean lantegian lan eginda baino 100 pezeta gehiago irabazten zituen hilean.

7. Aita eta bost semeak bandako kide

- **Erref:** ARR-152/014
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bixentek, aitak eta lau anaiak Arrasateko musika-bandan jo zuten. 16 urte betetzeko zituela hasi zen sartu zen bandan Bixente; bandarekin egindako lehenengo irteera, Bergarako Pazko jaietara izan zen. Arrasateko bandari buruzko hainbat datu ematen ditu: 1921ean sartu zen, eta Bixenteren aita sorreratik zer bertako kide. 11 anai-arreba ziren, horietatik bost mutilak. Bost anaiek jotzen zuten bandan; garai hartan, neskek ez zuten musika-bandan jotzen.

8. Hainbat musika-bandatan jotakoa

- **Erref:** ARR-152/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:21:36. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Donostian soldadu egon zen garaian, banda militarrean jotzen zuen Bixentek. Banda militarraz gain, ordea, auzoetako (Bulebarrean, Alde Zaharrean...) berbenetan izaten ziren banda txikietan ere aritzen zen tronpeta jotzen: banda horiek koartelean errefortzurako musikariak eskatzen omen zituzten. Inauterietan, Tolosako txarangak laguntzera ere joan ohi ziren banda militarreko musikariak.

9. Sei hilabete gehiago soldadutzan

- **Erref:** ARR-152/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan zenbat denbora egin zuen kontatzen du. San Inazioren bosgarren mendeurrena zela eta, Francok Loiolara joan behar zuen, eta hari "martxa

reala" jotzearren bandan jotzen zuten soldaduek sei hilabete gehiago pasatu zituzten soldadutzan. Franco edota haren emaztea Aieten egoten ziren denboran egunero jotzen zien bandak. Burgos, Irun eta beste hainbat herritako jaietan ere ibilia da Bixente banda militarrekin.

10. Gerra denboran, Oñatin

- **Erref:** ARR-152/019
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Bixente eta beste anaia bat Oñatiko izeba baten etxera eraman zituzten, eta han egon ziren gerrak iraun zuen denbora guztian. Bixenteren familiakoak Oñatiko Kale Zaharrean bizi ziren, eta oraindik gogoan du etxeko sarrera nolakoa zen.

11. Gosete handia

- **Erref:** ARR-152/023
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:28:23. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean, gose handia pasatu zuten Bixenteren etxean. Hasieran, dirua egon arren ez zegoen jatekorik; eta, gero, jeneroa iritsi zen, baina dirua falta zen. Errazionamenduko ogia nolakoa izaten zen eta "Jesus katilu" zeri esaten zioten kontatzen du.</p>

12. Gosaltzeko, txikoriatan bustitako karamelua

- **Erref:** ARR-152/024
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:29:59. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko gosetea du hizpide. Bixenteren etxean 11 seme-alaba ziren. Gabon gau batean zer azaldu zuten kontatzen du: etxeko bakoitzak txapa gainean erretako hiru arto ale jan zituen. Gosaltzeko amak txikoria lapikokada prestatzen zuen, eta karamelu txiki bat txikoriatan bustita ematen zien umeei. Karamelua 11 ahotatik pasatzen zen, eta anaia txikienak geratzen omen zen gozokiarekin. Amak mendira bildatzen zituen gaztainak eta egurra biltzera.

Egurra saldu egiten zuten gero. Bixenteren aitak Zerrajeran egiten zuen lan, "nikelean". Gerra denboran ez zuten lantegi hori itxi.

13. Kalean, "gorriak" ikusitakoa

- **Erref:** ARR-152/025
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:33:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean herrian zer giro zegoen azaltzen du. Auzoko neska batek ogi zati bat eman ohi zion ezkutuan Bixenteri. Kaleko jendeak "gorriak" ikusi zituela dio. Bixenteren bi arreba umetan hil ziren, eta amak esaten omen zuek haiek azukrea zer zen probatu gabe hil zirela.

14. 16 urterekin musika-bandan hasi

- **Erref:** ARR-152/026
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:33:57. **Bukatu:** 00:34:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

16 urterekin hasi zen Bixente Arrasateko musika-bandan tronpeta jotzen. Garai hartan, estatuak izendatzen omen zituen banda zuzendariak, eta Arrasatekoa Munarriz olitearra zen.

15. Lau urtez solfeoa eta instrumentua ikasten

- **Erref:** ARR-152/028
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:36:25. **Bukatu:** 00:37:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

11-12 urte zituela hasi zen solfeoa ikasten musika-bandako zuzenariordearekin, eta 16 urterekin sartu zen bandan. Hasieran, mutiko mordo batek eman zuen izena solfeoa ikasteko, baina 13 baino ez omen ziren geratu.

16. Soldadutzan, kontserbatoriora joan behar

- **Erref:** ARR-152/029
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:37:16. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan Bixentek banda militarrean jotzen zuen. Musikari profesionalak ez zirenak derrigortuta zeuden kontserbatoriora joatera soldadutza guztian. Guztira 12 urte eman zituen solfeoa eta instrumentua (tronpeta) ikasten.

17. 'Metalúrgica Cerrajera'n, sarrailagile

- **Erref:** ARR-152/032
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

'Metalúrgica Cerrajera' lantegian sarrailagile lanetan aritu zen anaiarekin batera. Zer lan egiten zituzten azaltzen du.

18. Zerrajerako lanak

- **Erref:** ARR-152/034
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:44:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Zerrajeran lanean hasi zeneko aurreneko egunei buruz hitz egiten du. Zerrajeran zer lan eta kargu izan zituen kontatzen du. Besteak beste, butano bonbonak eta automobilentzako hagunak ("llantak") egiten zituzten lantegi horretan. Egunean, 3.000 bonbona egiten zituzten. Era guztietako garraionetzako hagunak egiten zituzten.

19. Zerrajerako kontuak: butano bonbonak

- **Erref:** ARR-152/035
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:44:53. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Zerrajeran butano bonbonak nola egiten zituzten kontatzen du. Bonbonek jariorik ba ote zuten jakiteko zer proba egiten ziren azaltzen du.

20. Zerrajerako kontuak: hagunekin gorabeherak

- **Erref:** ARR-152/036
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:48:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Zerrajeran gorabeherak izan zituzten automobilentzako hagunen ("Ilanten") ekoizpenean. Lantegian Oñatitik zetorren ura erabiltzen zuten argia egiteko, baina ur horrek ez zuen behar adina presio, eta, ondorioz, gurpilak ez ziren behar bezala itsasten. Bartzelonako auto-lantegi batetik kexa jaso zutenean jabetu ziren arazoaz. Handik aurrera, Iberdrolako argindarra erabiltzen hasi ziren lantegian.

21. Musika-bandarekin batera eta bestera

- **Erref:** ARR-152/039
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:50:54. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Musikari izanda, inguruko herrietako jaietara joan ohi zen Bixente musika-bandarekin. Elorrio, Bergara, Aretxabaleta... eta beste hainbat tokitako jaietan jo ohi zuten. Elorrioko jaiak oso gogoko zituen Bixentek. Oinez, trenez edota kamioiz ibili ohi ziren batera eta bestera.

22. Santa Marina auzoren sorrera

- **Erref:** ARR-152/044
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:07:00. **Bukatu:** 01:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Bixente Arrasateko "Distrito 33"ean bizi izan da urteetan. Lau auzune zituen barruti horrek, bakoitza bere berezitasun eta jaiekin. Bixentek bultzatutako auzolan bati esker, lau auzuneek bat egin eta Santa Marina izeneko auzo bakarrean elkartu ziren. Santa Marina izenaren jatorria zein den azaltzen du.

23. 'Brotxas' barberua

- **Erref:** ARR-152/049

- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:15:03. **Bukatu:** 01:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mutikotan, 'Brotxas' ezizeneko barberuarenera bildatzen zuen amak ilea moztera. Barberuak dirua ekarri al zuen galdetzen zion Bixenteri, eta honek amak ordainduko ziola gero esan ohi zion. Barburuak orduan, ilea mozten hasi eta erdi bidean tabernara joan eta txikito bat hartzen omen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com